



'LUR SAGAR' DANTZAZ TALDEAREN ESKUTIK

Tolosako Leidor aretoan hiru koreografia «eder eta atsegin» eskainiko dituzte etzi, 20:30etik aurrera » 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-11-18

VIIURTEA 1.830.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Aizkora Txapelketako Maila Nagusiko kanporaketa jokatu da Asteasun

ASTEASU Usarrabi pilotalekuan izango da hilaren 22an, 17:30etik aurrera; hamaika aizkolari ariko dira lehiatzen

EKITALDIA Alkatearen ustez, onuragarria da herriarentzat; azken txapelketa duela 25 urte jokatu zen bertan » 4



Ekuadorko, Saharako eta Ibarako ordezkariak izan ziren herenegun, Kultur Etxean egin zuten inaugurazioan. R. CALVO

ANIZTASUNAREN ELKARGUNE DA IBARRA

GIZARTEA Kultur Truke Hamabostaldia hasiera eman diote; Sahara, Ekuador eta euskal kulturaren elkartrukea egitea du helburu » 6

Loatzo Festarekin bat egin dute Udal ordezkariek

TOLOSALDEA Hilaren 22an, Xexili Egunean, egun osoko festa egingo dute Villabonako kaleetan » 7

Eragin zuzena izan du gurean, eskola publikoetako jangeletako langileen grebak

TOLOSALDEA Hutsik egon dira jangela gehienak » 5

Alde Zaharra Birgaitzeko Planari behin behineko onarpena eman dio Udalak

TOLOSA Aurrekoa baino malguagoa izan nahi du » 2



HITZAK bi sarrera ditu

LAGUN ARO GBC GRAN CANARIA
saskibaloitardarako

Azaroak 19 • Osteguna • 20:30ean
Donostiako Ilunben



sarrerak



HITZAK bi sarrera pare ditu

LUR SAGAR DANTZA EMANALDIRAKO

Azaroak 20 • Ostirala • 20:30ean
Tolosako Leidor antzokian

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira

Udalak behin behineko onarpena eman dio Alde Zaharra Birgaitzeko Planari

Hirigintza » Egun indarrean dagoena 1999an onartu zen; baina oraingo honek aurrekoa baino malguagoa izan nahi du.

ERREDAKZIOA

Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezari behin behineko onarpena eman diote Udal ordezkariak. Honenbestez, astelehenean, hilaren 16an onartutako Plan Berezia, jendaurreko erakusketan ipini dute jada, eta hau hiru hilabetez egongo da ikusgai, herritarrek beraien alegazioak eta ekarpenak egin ahal dituzten.

Egun, indarrean dagoen Plan Berezia 1999an izan zen onartua, eta hamar urte eta gero, hau aldatzeko garaia iritsi dela iritzi, beste bat proposatu dute. Jokin Bildarratz alkateak azaldukoaren arabera, «ikusita da duela hamar urte egindako Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia ambizio handikoa zela alde urbanistikotik begiratuta, baina era berean, zurrunezia kudeaketari dagokionean». Alde batetik, etxadietako patioak irekitzeko, aktuazio publiko garrantzitsuegia suposatzen zuen eta bestetik, zorrotzegia zen, ordenazioz kanpo uztean, Alde Zaharreko hainbat eraikin.



Atzo goizean aurkeztu zuten publikoki Alde Zaharra Birgaitzeko Plana. E. EZEIZA

«Malguago izan nahi du plan berriak»

Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia egun dauden arazo larrienak konpondu nahi ditu, baina aldi berean, indarrean dagoen Plan Orokorrari egokitu. Udal korporazioak lehenbailehen irtenbidea eman nahi dien arazoan artean daude, bizitzeko bizigarritasuna,

eraikinen eraikitze egoeren arazoa, eta osasungarritasuna. Helburu hauek lortzeko, eraikinak birgaitu nahi dituzte, baita Alde Zaharreko bizitza soziala suspertu ere. Xede horrekin lotuta dago, Abastoseko proiektua ere, hau da, Haur eskola bertan egitearena. Honek jende gaztea erakarriko baitu Alde Zaharrera.

Plan hau, aurrekoa baino malguagoa dela diote Udalekoek, esaterako, kalearteko patioen irekiera, eta laugarren pisuaz gaineko bizitzeko deusezte aldea batera uzten ez badu ere, bigarren fase baterako geratzen direlako. Hala, orain artean ez bezala, bost eta seigarren pisuak konpontzeko nahiz kontrolatzeko aukera egongo litzateke.

Bestalde, azken pisu eta ganbaretan bizitzeko aukera ematen da, eta gutxieneko azalera ere aldatu egiten da. Hala ere, lau solairu baino gehiago dituzten eraikinak ordezkatu behar baldin badira (sute bat gertatu delako, edo eraikina bota eta berri bat egitea erabaki delako), berriak lau solairutakoak izan beharko dira.

Patioen kasuan, propietate pribatu izaten jarraituko dute, baina auzotarrak hauek txukuntzera behartuko dituzte, osasungarritasunaren alde.

Plan berrian, modu objektiko eta zehatz batean eraikin bakoitzaren ezaugarriak izendatu dituzte, eta hauek dituzten arazoak nahiz Planarekin batez datozen elementuak zerrendatu. Hala, aurrera begira, berrikuntzak egin behar dituztenean, pixkanaka, hauek konpontze aldera, bideratuko dira.

Udal ordezkariak Plana egiteko garaian oso garrantzitsutzat jo dute herritarren parte-hartzea, hori dela eta beraien hitzetan, «Plana osatzeko, etxetz joan gara, eraikin bakoitzaren inguruko fitxa osatzeko eta merkatarien elkartekoekin eta ostalarienekin hitz egin dugu». Behin alegazioak bildu eta talde erredaktoreak aztertu ostean, Alde Zaharreko Batzorde Mixtoak bilerak egingo ditu merkatariek nahiz auzotarren ordezkariak beraien iritzia emateko. Informazio hau guztiak bildu ostean, Udalak Plan berrian aldaketak egitea, edo dagoen bezala onartzea erabakiko du. Halaber, Udal ordezkariak auzotar guztiak Plana ikuskatzera gonbidatzen dituzte.

Bederatzigarren aldiz zeharkatu du Sella ibaia Karlos Peña igerilariak

ERREDAKZIOA

Hiru ordu eta 24 minutu behar izan ditu Karlos Peña igerilariak Sella ibaia zeharkatzeko. Bederatzigarren aldiz bete du erronka hau 44 urteko tolosarrak.

Joan den larunbatean Arriondasetik Ribadesellaraino egin zuen igeri, bizkarrez, abenturazaleak, 19 kilometroko bidea hain zuen ere. Ur izoztuei eta tenperaturara hotzei egin behar izan zien aurre. 12:00ak aldera ekin zion lanari, oraingoan ere, bere lagun Jesus Remirezen babesa izan zuen. Hau bere alboan joan zen bide guztian, piraguarekin.

Teresa Gonzalez 'Pirula', gozoki saltzaile ohia hil da

Gizartea » 83 urte zituela zendu zen atzo tolosar pertsonaia ezaguna; aitaren bidea jarraituz hasi zen gozokiak saltzen kalean.

ERREDAKZIOA

Atzo hil zen Teresa Gonzalez *Pirula* ezizenez ezaguna zen gozoki saltzaile ohia, 83 urterekin.

Teresa Gonzalez, Tolosan jaio zen, San Juan kalean. Haurra zela ama hil zitzaion, eta txikitatik Belatan, Jesusen Mirabean etxean. Aita, Julian Pirulo, berak egindako gozokiak saltzen aritzen zen kalean. Gainera, aipatzekoa da, oraindik ere mantendu egiten direla moldeak. Pirulok karta-sorta batekin zozketak egiten zituen eta gozokiak nahiz erroskilak banatzen zituen sari gisa. Horrela erakartzen zituen bezeroak. Teresa Gonzalez, bere aita bezala, 15 urterekin gozokiak saltzen hasi zen kalean.



'Pirula' duela urte gutxi. I. TERRADILLOS

Baina, kalean saltzea debekatu zenean, Trianguloko arkupean jarri zuen bere txokoa, eta han saltzen zituen bere gozokiak. Azkenik, 65 urterekin jubilatzea erabaki zuen.

Bizitza gozorra izan zuen tolosarrak, gaztetxo zela, hartutako kolpe baten ondorioz, entzumena galdu zuen.

Tolosako sukaldariak San Sebastian Gastronomikan

Kultura » Hilaren 23tik

25era bitartean ospatuko da Kurasaalean; eskualdeko sukaldaritzaren ere ordezkatu izango da kongresuan.

ERREDAKZIOA

Hilaren 23tik 25era San Sebastian Gastronomika, Gastronomiaren Nazioarteko Kongresua ospatuko da Donostian, eta bertan izango dira Tolosako hainbat ordezkari. Hori dela eta, Fronton jatetxean aurkeztu zuten egitasmoa joan den astean.

Azken hamar urteotan, Donostia nazio eta Europako Gastronomiaren «erdigun» bihurtzea lortu dute, sektoreko ekitaldi garrantzitsuenetako bat antolatzean. Kurasaaleko alfonbratik ibili dira munduko Gastronomiako pertsona garrantzitsuenak eta ibiltzen jarraituko dute.

Esaterako Off Gastronomika

kongresuaren baitan, hilaren 25ean parrilla planetajardunaldiaren baitan, Casa Julianeko Matias Gorrotxategi izango da hizlarietako bat, baita, Casa Nicolaseko Pedro Ruiz ere. Hilaren 24an berriz, Sukaldaritzaren mundua: hotelak, jatetxeak, ardoak... atalaren baitan, beste bi Tolosar izango dira hizlariak: Frontoneko Roberto Ruiz eta Illargi Delicateseneko Mireia Carceguer.

Off Gastronomika kongresua, kongresu txiki bat da, kongresu handi baten barruan. Edo, hobe esanda, berariazko jardunaldiak, paralelo eta independenteak, egintzaren osoko ikuspegi gastronomikoa perfektionatzeko.

Sukaldaritzaren eta sormena oinarritzat hartuta gastronomiaren mugako eremuetara eramango ditute jardunaldi hauek, oso formatu interaktiboan bitartez sukaldaritzaren iragana eta etorkizuna ezagutzera eman arte; jangela eta zerbitzuarekin lotutako guztia.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nalanda etorb. 11 behean - TOLOSA
Mag.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

Laskorain bigarren postuan, azken garaipenaren ondoren

Kirola » Bilboko Iturriondo taldearen aurka 2-3 irabazi zuten horitxoek; Gil eta Lander izan ziren golegileak.

ERREDAKZIOA

Pasa den astean lidergoa galdu eta hirugarren postura jausi ondoren, Iturriondo bigarren sailkatu berriaren aurka indarrak neurtzeko unea egokitzten zitzaion larunbatean Laskorain areto futbol taldeari. Garaipena eskuratu zuten tolosarrekin, eta ondorioz bigarren postura igo dira.

Norgehiagoka neketsua aurreikusten zen, izan ere, bilbotarrek maila dute eta, Javi eta Jorgeren mutlak azken bi partiduetan punturik lortu gabe zihoazen. Hori gutxi balitz eta tajuzko entrenamendurik burutu gabeko aste bati, Elo-la, Murgi, Alonso eta Joniko jokalarien bajak gehituta, larunbateko puntuek balio bikoitza dutela baieztatzen dute taldeko ordeezkariak.

Gil eta Endika bikain

Konzentrazioz beterik eta neurketak zuen garrantziaren jakitun kantxaratu ziren beraz horitxoak aparteko seriotasuna erakutsi zutelarik defentsan hasiera-hasieratik. Bilbotarrek osatzen duten erasoari era guztietaiko oztipoak erakutsi eta gero 0-2ko emaitzarekin ipini ziren aurretik ikastolakoak, golegile Gil izan zen birritan. Aspaldi honetan haserrealdian irau eta gero, azkenik areto futbolarekin «bakeak egiteko erabakia hartu duela dirudi», lehen zatiko protagonista nagusia bera izan zelarik. Endika atezainak ere merezi du aipamenik, esku bikainak ateratzeaz gain, penalti bat ere gelditu baitzuen tarte horretan arerioaren etsipenerako.

Bigarren zatian etxekoek gehiago estutzeko ahalegina egin zuten, baina alde murriztea lortuagatik, Landerrek beste sareratzeko bat egin eta 1-3koa igo zuen markagailura. 14 minuturen faltan bizkaitarrek atezain jokalariren taktika ipini zuten jokoan, alde berriro murriztea erdietsi zutelarik, baina 2-3ko emaitzari bikain eutsi zioten tolosarrekin amaierara arte.

Yustos kapitainari eskerrak eman nahi dizkiote taldekideek, «konprometuz beteriko keinu batean». Bilbora bidaiatu baitzuen nekez bete ahal izan zen deialdi bat osatzeko.

Larunbatean Bilbon, Javi delegatua, Alonso eta Javi entrenatzaileak, Imanol prestatzaile fisikoa, Endika, Telleria, Barriola, Gil, Lander, Zabala, Yustos, Belloso, Ekhi eta Urko jokalariek izan ziren garaipenaren protagonistak.

'Lur Sagar' aurkeztuko du Dantzaz konpainiak etzi

Kultura » Hiru koreografia izango dira ikusgai Leidor aretoan, 20:30etik aurrera; Biarritz taldeko kideek osatzen dute Dantzaz.

INIGO TERRADILLOS

Dantza emanaldi interesgarriaz gozatzeko aukera izango da etzi, Leidor aretoan, 20:30etik aurrera. Hain zuzen ere, Dantzaz konpainiak *Lur Sagar* ikuskizuna taularatu du.

Ballet Biarritz junior bezala hasi zen taldeak bide propioa hartu du eta Dantzaz konpainia da orain. Dantzari gazteek eta maila handikoez osaturiko taldea osatzen dute, eta «profesionalki lan egiteko prest daudela erakusten dute». Ez da Leidor aretoan euren dohainak erakusten dituzten lehendabiziko aldia. Oraingo honetan, dantza ikuskizun «eder eta atseginarekin» datoz. *Lur Sagar* emanaldiak hiru koreografoen hiru lan bilatzen ditu: *Jaar Eden* Gáel Domenger koreografoarena, *Songeurs* Christophe Garciarena eta *Earth Apples* Itzik Galilirena.

Hiru koreografia

Jaar Eden koreografian bi dantzari Eden ibaia ureztatzen duen iturri buruaren bila joango dira. Gai ugari buruz galde egitera eramango dituen arakatzeko lan bat da: egunerokotasuna, euren emozioak, euren oroitzapenak, euren gorputza eta besterekin duten harremana. Aldi berean, Edenari buruz eta bizitzaren sorburu den iturriari buruz orain dugun ideiarene irudikapena ulertzera gonbidatzen gaitu.

Songeurs koreografia hasieran hiru emakumezkoentzat sortua



Etzi ikusgai izango den emanaldiko bi une. HITZA

izan zen, eta orain gizonezkoentzat egokitua izan da. 3 pertsonaen unibertso onirikoa sartzea proposatzen digu. Bere burua alegiazko munduaren mende utziko dute baina, aldi berean, bere kontraborrokatu dute, kolpatuko dira, inoiz etsi gabe. Nahiz eta amets motza izan, bertan atxikitzea beti merezi du, une batez errealtatetik ihes egiteko.

Earth Apples koreografiari dimensio eta indar berria ematen dio Dantzaz konpainiak. Jatorriz gizonezko zazpi dantzariarentzat

» DATUAK

- **Emanaldia.** *Lur Sagar*.
- **Taldea.** Dantzaz konpainia.
- **Lekua eta eguna.** Leidor aretoan, etzi, 20:30ean.
- **Sarrerak.** www.kutxa.net, Servikutxa, Telekutxa eta leihatilan.

sortua izan arren, koreografia hau sei emakumezko dantzari eta gizonezko dantzari batek interpretatuko dute, eta elkarrekin egingo dute euren gaztetasuna lurraren antzinako jatorriekin.

Tolosak Berioaren artekoa galdu du partida orekatuaren ostean

Kirola » 2-1 galdu zuten tolosarrekin donostiarren aurka; larunbatean Aloña Mendiren aurkako partida izango dute Berazubini.

ERREDAKZIOA

Lurreldekako ohorezko mailako Tolosak Berioaren aurkako partida izan zuen larunbatean, eta donostiarren esku geratu zen garaipena, 2-1eko emaitzarekin.

Berio futbol taldea nagusi izan zuen norgehiagokaren lehenengo erdian. Gainera, partidahasitasea gertatu, soilik sei minutu igaro zire-

nean, egin zuten lehendabiziko gola. Monreal jokalariek sartu zuten. 2-0koa ere lehen zatian sartu zuten donostiarrek. Kasu honetan, Garmendia jokalariek sartu zuten gola.

Berio izan zen jauna eta jabe lehenengo zatian, baina gauzak aldatu egin ziren bigarrenetan, Tolosa gogor saiatu baitzen markagailuari buelta ematen. 68. minutuan 2-1eko gola sartu zuen Balerdik, eta ez zen gehiago aldatu markagailua. Tolosarrekin, ordea, baloia ate barruan sartzeko aukera ugari izan zituzten, baina ez zen posible izan, batez ere, Berio atezainak egin zuten lan handiari esker.

Tolosak, beraz, ez zuen punturik jaso azken norgehiagoka horretatik, eta ondorioz, hamaikagarren postuan daude 12 punturekin. Lurreldekako ohorezko mailako liderra Ondarroako Aurrera da 27 punturekin, bigarren ostuan Pasaia dago 22 punturekin eta hirugarren postuan, berriz, Ordizia dago 19 punturekin.

Garaipena beharrezkoa

Larunbat honetan Tolosak Aloña Mendi taldea izango du aurkari. Aloña Mendi taldekoak euren atzetik, 14. postuan daude sailkapenean, beraz, tolosarrekin bezain beste beharko dute garaipena lortzea.

Laburrak

Voith-Gorostidi eremuko 33 etxebizitzaren zozketa

ETXEBIZITZA » Voith Gorostidi eremuko 33 etxebizitza tasatuen zozketa egingo dute gaur. 17:30ean izango da, eta Leidor aretoan egingo dute. Guztira, 149 pertsonak eman dute izena zozketan parte hartu eta etxebizitza bat egokitzeko. Bertan lau motatako etxebizitzak egongo dira: hiru logelako hamasei etxebizitza, bi logelako hamalau etxebizitza, logela bakarreko bi etxebizitza eta egokituriko etxebizitza bat.

lurreamendin Milagrosako Bederatziurreneko mezak

ERLUJIOA » lurreamendi egoitzan Milagrosako Bederatziurren irauten duen bitartean, hau da, hilaren 19tik 27ra bitartean ondorengo egunetan eta orduetan izango dituzte mezak: goizez lan egunetan 08:00etan izango dira, eta jai egunetan, berriz, 09:00etan; arratsaldean, bestalde, 16:30ean. Mezaren aurretik errosarioa errezatuko dute.

Karrozak gordelekutik ateratzeko deialdia

GIZARTEA » Tolosako Udaleko Kultura sailetik jakinarazi dutenez, Inauterietako karroza-konpartsen eraikunguea (ferialekua) prestatzen ari dira. Abenduan emango dituzte ezagutzera 2010eko Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketan parte hartzeko oinarriak, eta izena emateko epea zabalduko dute. Orduan, izena ematen dutenek ferialekua erabiltzen hasteko modua izango dute. Bestalde, udal gordelekuan dauden plataformak ferialekura eramateaz Udala arduratuko da, baina aurretik ezinbestekoa izango da jabe beren plataformara erabili behar dutela bermatzea. Beraz, udal gordelekuan plataformaren bat dutenek Kultur Etxetik pasa beharko dute 15:00etatik 21:00etara erren plataformara zein den eta atera behar duten edo ez adieraztera. Gordelekuan dauden plataformak guztien argazkiak dituzte Kultura sailean.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Zakurra.** Belautzian zakur bat galdu zen igandean. Labrador arrazakoa, ile horiduna eta lepoko beltzarekin. Deitu mesedez 645 71 35 20 telefono zenbakira (arratsaldez).

LANA

■ **Konponketak.** Ordenagailuak konpondu, eguneratu eta zaharberritzen dira. Etxerako zerbitzua. Interesatutako deitu 633 30 64 56 zenbakira.

Maila Nagusiko Euskadiko Aizkora Txapelketako kanporaketa Asteasun

Herri Kirolak » Azaroaren 22an Usarrabi pilotalekuan jokatuko dute, 17:30ean. Hamaika aizkolari lehiatuko dira.

ENERITZ MAIZ

Atzokoizean aurkeztu zuten Asteasuko udaltxelean aurtengo Euskadiko Aizkora Txapelketako Maila Nagusiko kanporaketa. Igandean, hilaren 22an jokatu da arratsaldeko 17:30ean bertako Usarrabi pilotalekuan. Inoiz ez da Asteasun honelako txapelketa edota kanporaketarik jokatu eta Asteasun lehen aldiz hartuko du honelako txapelketa bat. 25 urte pasa dira, lehen txapelketa burutu zenetik.

Aurkezpen ekitaldian, Koldo Alduntzin Euskadiko Herri Kirol Federazioko koordinatzailea, Iñaki Azurmendi Beasaingo aizkolaria, Iñaki Amenabar Asteasuko alkatea, Jose Angel Sarasola Asteasuko kirol taldeko ordezkaria, Joseba Otaegi Zizurkilgo aizkolaria eta Aitor Esnaola federazioko kidea izan ziren.

Atzokoan, kanporaketa hau «elkarlanean» antolatuta dutela azpimarratu nahi izan zuten federazioak. Eta Udalaren eta Kirol taldearen ekarpenak «beharrezko» direla argitu zuten honelako txapelketak aurrera eraman ahal izateko eta eskerrak eman nahi izan zizkieten. Kasu honetan, federazioak, Asteasuko Udala eta Kirol Taldearen eta eskualdeko hainbat lantegien laguntza izan du.

Asteasun urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen dira eta hau eskaini zietenean ez zuten zalantzarik egin; «Guretzat, Asteasuko Udala bezala herri kirolei aurrera egiten laguntzea ohorea da eta herriarentzat ekitaldi on bat dela uste dugu. Herritarrak eta ingurukoetakoak parte hartzea animatu nahi ditugu», gaineratu zuen Iñaki Amenabar alkateak.

Jarraian hitza, Jose Angel Sarasola herriko kirol taldekoak hartu zuen. «Lanik zailena eginga dugu herrian, hau da, lanerako taldea



Alduntzin, Azurmendi, Amenabar, Sarasola, Otaegi eta Esnaola atzoko aurkezpenean. E. MAIZ

egina dugu», azpimarratu zuen. «Antolaketa ia federazioak egiten du eta gure lana igandean gerturazten denari erosotasuna ematea izango da. Borondatea badugu lanerako eta ahalik eta ongien egiten saiatuko gara» adierazi zuen Sarasolak. Kolaborazioak ere lortu dituzte, bai Udalarena eta baita hainbat enpresena eta jarri duten sarrekin gastuak ordaintzea espero dute. Beste udalei ere honelako ekitaldiak antolatzea animatzeko dei luzatu zuen. Kanporaketa hau ikusteko sarrera, 10 eurokoa izango da eta gaztetxoak doan sartzeko aukera izango dute.

» BURUZ BURUKO AIZKORA TXAPELKETA

Maila Nagusiko Euskadiko Txapelketako kanporaketa

- **Azaroak 22.** 17:30ean, Asteasuko Usarrabi pilotalekuan.
- **Sarrera.** 10 euroren truke esku-ratuko da, gaztetxoek doan sartzeko aukera izango dute.
- **Aizkolariak.** 11 aizkolari lehiatuko dira.
- **Nafarrak.** Floren Nazabal, Antonio Senosiain, Aitor Senosiain, Juan Jose Lopez eta Daniel Vicente dira.
- **Gipuzkoarrak.** Luis Txapartegi, Jexux Mari Mujika, Iñaki Azur-

11 parte-hartzaile, baten faltan Asteasun jokatu den 25. kanporaketa honetan 11 aizkolarik parte hartuko dute. Hamabigarrena Joxe Juan Barberena izan behar zuen baina aurtengoan uko egin dio parte hartzeari eta honela bera izango da maila galdu eta bigarren mailara jaitsiko den lehena.

Maila Nagusiko Euskadiko Txapelketa izango da eta hauek izango dira lehiatuko direnak: Floren Nazabal Etxarri-Aranatzekoa, Antonio Senosiain Olaguekoa, Luis Txapartegi Aizarnakoa, Aitor Senosiain Olaguekoa, Juan Jose Lopez lezaungoa, Jexux Mari

Mujika ibartarra, Iñaki Azurmendi beasainarra, Joseba Otaegi, zizurkildarra, Joxe Mari Olasagasti igeldoarra, Jose Angel Zubiaga izango da lehenengo arabako Meoioiko eta Daniel Vicente otsagabiarrak izango dira. Beraz, bost nafar, bost gipuzkoar eta arabar bat izango dira aurtengo txapelketan lehiatuko direnak.

Joseba Otaegi eta Jose Angel Zubiaga lehen aldiz ariko dira Euskadiko Maila Nagusiko Txapelketan. Biak, iazko II. Mailako Aizkora Txapelketako txapelduna eta txapeldunordea izan ziren.

Egin beharreko lana

Sei pago enbor ebaki beharko ditu bakoitzak: 54 ontzako bi enbor, 60 ontzako bi enbor eta 72 ontzako beste bi enbor, hain zuzen ere. Lana bukatzen duten lehen seiak, abenduaren 20an Arbizun jokatu den finalera pasako dira. Azken geratzen denak berriz, txapelketa jokatzeari uko egin dion Joxe Juan Barberena nafarrarekin batera maila galdu eta bigarren mailara jaitsiko da.

Orain arteko marka, 1986. urtean, Angel Arrospe leaburuarrak egindakoa da, lan hauek burutzeko 15 minutu eta 16 segundo behar izan zituen.

Laburrak

Gaur podologo eta bihar gaztain jatea Alkartasunan

ANOETA » Gaur, Alkartasuna elkartera, hileroko bisita egingo du Nagore Franco podologoak. 15:00etatik aurrera elkartean egongo da eta bertarazten direnei bere zerbitzua eskainiko die. Bestetik bihar, hilak 18, 18:30etik aurrera, adinekoek gaztain jatea egingo dute elkartean bertan. Igandean berriz, Alkartasunakoek, azkena hil direnen oroimenezko meza ospatuko dute. Gogoan izango dituzte, Simon Ugartemendia, Maria Jesus Goikoetxea eta Maria Jauregi. Meza 12:30ean izango da bi hizkuntzetan Anoeta-ko elizan.

Emakume abertzaleon IV. Topaketa Feminista

VILLABONA » Tolosa, Alegia eta Leizatik pasa ostean, Villabonaren txanda da gaurkoa. Bilgune Feministak antolatutako Emakume Abertzaleon IV. Topaketa Feministen azken aurkezpena izango da. Gaur 19:30ean, Villabonako Udaleko erabilera anitzeko gelan elkartuko dira. Agertu duten leloa, *Biluztuz Jantzi, Identitate feministak sortuz, Euskal Herria aldatu* izan da. Emakume anitzentzako topaketak izatea nahi dute eta ahalik eta ekarpen gehien jasotzea dute helburu. Abenduaren 12rako, Emakume Abertzaleon IV. Topaketa Feministak antolatuta dituzte Tolosan eta bertako topaketa ahalik eta aberatsen izan dadin emakume guztiei dei egiten diete parte hartzeko.

Otañoren mendeurrena dela eta gaur bilera

ZIZURKIL » Pello Mari Otaño bertso-lari zizurkildar handia hil zela 100 urte beteko dira maiatzean. Mendeurrena behar bezala prestatzeko, talde multidiziplinarra jarri dute abian Zizurkilen: Udalekoak, eskoletakoak, familiakoak, Hermandorena Kultur Taldekoak... baina talde horretan interesa luketen herritarrak falta dira. Horretarako, herri-batzarra deitu dute gaurko. 18:00etan, Zizurkil Goiko Iriarte etxean bilduko dira eta interesa duenak ekimenean parte hartzeko aukera izango du.

EGUNKARIAREN ALDEKO KANTU JIRA



Azaroak 21 larunbata, Donostian

- 11:30 Hernaniko dultzaineroak, Parte Zaharrean zehar
- 12:00-14:00 Kantu Jira, Trinitate plazan hasita



J. Francisco Amiamaren hitzaldia Mintzolan

E. MAIZ

Villabonako Udalak antolatuta, *Zeinek agintzen du etxean?* hitzaldia izango da etzi, 18:30ean Mintzolan. Hizlaria, J. Francisco Amiamana izango da.

Bestetik, Gurasoen arteko topaketak antolatuta dituzte. Izena uda-

lekogizarte zerbitzuetan eman beharko da azaroaren 23tik, abenduaren 4a bitarte. Haurtzaindegi zerbitzua aurrez eskatu beharko da eta kuota 12 eurokoa da. Bi taldetan banatu dituzte taldeak: 0-10 urte artekoentzat edota 11 urtetik aurrerakoentzat.

Sindikatu en deialdiari erantzunez bi egunez eskola publikoetako jangeletako langileek greba egin dute eta gurean ere izan du eraginik; eskariak bete ezean, protesta gehiago aurreikusi dituzte.

Jangelarik gabeko egunak

NOELIA LATABURU

Hutsik. Horrela egon dira ikastetxe publikoetako jangelagehienak azken bi egunetan. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoetako jantokietako langileek euren eskubideak aldarrikatzeko greba egin dute azken bi egun hauetan. Hala, atzo eta herenegun, batez beste 55.000 ikasle inguruk eskolatik kanpo bazkaldu behar izan zuten. Eskualdean ere ondorioak izan dituzte protestek eta hainbat endredo ere sortu du.

Atzo arratsaldean klaserik gabe

Esan bezala, eskualdeko ikastetxe publikoetan ere izan zuen eraginik greba deialdiak. Sindikatuek emandako datuen arabera %88 inguruko jarraipena izan zuen grebak eta ondorioz azken orduko hainbat moldaketa egin zituzten.

Atzo garraio zerbitzua aurreratu zuten eta arratsaldean ez zen klaserik izan Samaniegon

Sindikatu en datuen arabera, Gipuzkoan %88ko jarraipena izan zuen greba deialdiak

Tolosako Samaniego ikastetxean, esaterako, nabarmen nabaritu zuten grebaren eragina. Bertako idazkaria den Ana Aierbek azaldu

bezala, «Hezkuntza sailaren gomendioei jarraituz, arratsaldeko garraioa eguerdira pasa behar izan dugu; jardunaldi jarraia egin dugu eta arratsaldean jai egingo dugu». Ez zen erabaki samurra izan ikastetxearentzat, beraiek ere «konsziente» baitira aldaketa honek hainbat familian sor ditzakeen arazoek. «Batzuek ez dute seme-alabak non utzi».

Hori atzoko egunari dagokionez; haatik, herenegun egoera konplexuagoa izan zen. Izan ere, astelehenean bertan jakinarazi zioten ikastetxeari gutxiengo zerbitzuak bertan behera geratzen zirela. «Ostiralean gutxiengo zerbitzuak arautzeko dekretu bat onartu zela jakinarazi ziguten, baina sindikatuek bidalitako ohar batean agian hauek ere ez zirela egingo esan ziguten ostiral eguerdian. Azkenean, astelehenean bertan jakin genuen zerbitzu hauek ere ez zirela bermatuko; ez genuen denbora nahikorik izan egoera kudeatzeko».

Berandu zen, beraz, atzoko bezalako neurri bat hartzeko; hau da, garraioa aurreratzeko. Hezkuntza sailetik ere ez zieten konponbiderik aurkeztu. Hori dela eta, «azkenean guk geuk, irakasleok, jangelako zerbitzua eskaini behar izan genuen, ardura bat genuela ere ikusi genuelako».

Beste herri batzutan ez zen horrelako arazorik suertatu. Ikastetxetan, esaterako, jangela izan zuten, hiru langiletik bakarrak egin baitzuten bat deialdiarekin.



Tolosako Samaniegoko ikasleak etxera bidean, bazkaltzera; Asteasun, jangela hutsik. I. TERRADILLOS / E. MAIZ

Guraso gehienak, «kexu»

Gurasoek ere jasan zituzten zuzenean jangeletako langileen grebaren ondorioak. «Lanean gaude eta egun batetik bestera ezin ditugu gauzak aldatu», zioen gurasoetako batek. Oro har, gehienak kexu azaldu ziren, nahiz eta batzuk «ulertzen» duten horrelako aldarrikapenak egotea.

Irakasleek ere ulertzen dute langileen nahiz gurasoen jarrera. «Batzun eskubideak errespetatzen badituzu besteak urratzen dituzu», dio Aierbek.

Zeintzuk dira eskariak?

Jangeletako langileek txostenak sortzeko lan-orduen luzapena, prestakuntza berezia, ratioen murrizketa, eta soldataren %5eko igot-

era eskatu dute. ELA, LAB eta CCOO eta UGT sindikatuek deitu zuten grebara eta euren ustez, «argi dago» langilegoa «kontzientziatuta eta haien eskubideengandik amaiera heldu arte borrokatzeko prest dagoela». Grebaz gain, atzo eguerdian elkarretaratzeko ere egin zituzten EAEko hiru hiriburuetako Jaurlaritzaren ordezkariak aurtean.

Sindikatu en balorazioa

Grebara deitu zuten sindikatuek lehen datu eta balorazio orokorra egin dute dagoeneko. Euren esanetan, langileek «ahal zuten guztia» egin dute gatazka gainditzeko, baina «Eusko Jaurlaritzak eta patronalak ez duten jarrera hori azaldu».

Emandako datuen arabera Gipuzkoan %88ko jarraipena izan zuen grebak, Bizkaian %93koa eta Araban, %80koa. «Langile hauek pairatzen ari diren diskriminazio egoerarekin amaitu nahi dute eta horretarako borrokatzeko prest daudela erakusten dute berriz datuek».

Pasa den apirilean, maiatzean eta ekainean ere egin zituzten grebak sektore honetako langileek eta eskatutakoa lortu ezean, abendurako ere aurreikusi dituzte protesta gehiago.

Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailak, bere aldetik, eskoletako jantokien gatazka sortutako egoera «onartezina» dela esan zuen ohar batean eta sindikatu en eta enpresen «erantzukizuna» eskatu zuen.

Pirritx, Porrotx eta MariMotots

IRRIEN LAGUNAK CDa

16 €



Euskal pirata bihurriak gara;
zatoz gurekin irriak abordatzera!

Noiz eta nola egin eskaria?

Azaroaren 30 arte:

- 902-82 02 01
- harpidetza@hitza.info

Bidalketa gastuak doan



PIRATAK
DVDa

18 €

hitza info

Ekuadorko dokumental batekin hasi dute Kultur Trukea

Kultura » Herenegun inauguratu zuten aurtengo Kultur Truke Hamabostaldia Benito Izagirre kultur etxean egindako ekitaldiarekin.

REBEKA CALVO

Hasi dute jada Ibarra aurtengo Kultur Truke Hamabostaldia. Atzo hasi zen *Ecuador: Region Sierra Norte* izeneko dokumentalaren emanaldiarekin eta hilaren 29an amaituko da. Bihar bertan izango da bigarren ekitaldia, 17:30ean Saharako ipuin kontaketa saioa izango baita Miriam Mendozaren eskutik Kultur Etxean.

Urtero egiten duten astea da eta Txelo Romeok, Ibarra alkateak, hamabostaldia inauguratzeko herenegun egindako ekitaldian esan zuenez, «Ekuador eta Saharako kulturak eta gurea elkartrukatze-ko» aukera paregabea da. Izan ere, Kultur Trukea Ibarra izen bereko Ekuadorko herriarekin eta Saha-



Ekuadorko, Saharako eta Ibarra ordezkariek bildu ziren inaugurazio ekitaldian. R. CALVO

rako Tichlarekin senidetuta dagoelako antolatu du Udalak azken urteetan.

Hau guztia antolatzeko, hala ere, Tolosaldea Sahararekin, Comunidad de Ecuatorianos Resi-



dentek en Ibarra eta Ibaratik Misio Taldearen laguntza izaten du. Kultur Truke Hamabostaldia inauguratzeko, lehenik eta behin Alurr dantzataldeko bi gaztek agurrak dantzatu zieten bai Ibarra

Udaleko arduradunei eta baita Ekuador eta Saharako hainbat ordezkariri ere. Ondoren, Loatzo musika eskolako haurren emanaldia ere izan zen eta Txelo Romeoren hitzen ondotik, atzotik hilaren

27a bitarte Kultur Etxean dagoen erakusketan ikusteko aukera ere izan zen pintxoan artean.

Erakusketan Ekuador, Sahara eta Ibarra bertako artisten lanak bildu dituzte. Ibaratik Vanessa Alzateren lanak ikusi daitezke. Alzate Arte Ederretako lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean eta erakusketan ugari jarri ditu jada, azkena iaz Tolosako Aranburu Jauregian jarritako bakarkakoa izan zelarik. Aurten bertan, gainera Goiart lehiaketa irabazi zuen eta doktoretza-ikasketak ere burutzen ari da.

Ekuadorko bi artista

Ekuadorri dagokionez, bi artisten lanak bildu dituzte, Ibarra bizidun Gonzalo Perezek eta Ekuadortik egun batzuk igarotzera etorritako Galo Urbinarekin. Perezek Andeetako eskulan ekuatoriarrak ditu erakusgai Ibarra eta Gipuzkoan egiten diren hainbat kultur truke ekitaldian hartu izan du parte, Tolosan, Zizurkilan eta Larraulen, esaterako.

Saharako Beibat Abdalahiren lanak ikusteko aukera ere badago. Abdalahi saharar errefuxiatu eremuetan jaio zen, bere herriak pairatzen duen egoeraren ondorioz beste ehundaka saharar bezala. Margolanak egiten ditu eta bere lanak Senegalen, Mauritaniaren eta Algerian ere erakutsi izan ditu.

«'Paella con aji' umorea erabiliz kontatutako bi kulturen arteko amodio istorioa da»

GALO URBINA » Artista

R. CALVO

Galo Urbina ekuatoriarrak curriculum luzea du. Arteen goi mailako ikasketak egin zituen bere herrian eta ondoren, 1985tik 2003ra, irakasle moduan aritu zen. Ezin du geldirik egon, hori dio behintzat, eta horren adierazle da margolanekin batera film ugari ere egin dituela. Ibarra bere margolanak ikusi daitezke, baina baita bere filmetako bat ere, *Paella con aji* (hilak 27, 19:30ean Kultur Etxean) izeneko.

Ze motatako lanak bildu dituzu Ibarra?

Nire lan orokorraren zatitxo bat



R. CALVO

besterik ez dut ekarri. Margo figuratiboak dira, joera errealistako zazpi koadro dira, batzuk paisaiak dira eta beste batzuk figuratiboak. Oleora margotutakoak dira.

Urteetan zehar egindako lanak dira, hortaz.

20 urteetako lagin txiki bat da, nahiz eta azken bi hilabeteetan egindako koadroa ere ekarri duan Ibarra.

Zer da zure lanen bidez erakutsi nahi duzuna?

Lehenik eta behin, lanak osatera bat izan dezala bilatzen dut, osagai estetiko guztiak biltzea, alegia. Horixe baita margolanen eta artisau

lanen arteko aldea. Bestetik, kolore latinoak zabaldu nahi dut, kasu honetan kolore ekuatoriarra, baina ez bakarrik kolore bezala identitate bat eraikitze, baizik eta Andeetako koloreek eman dezaken informazioa orokortzeko. Era berean, profesional bezala materiaren erabilera erakutsi nahi dut.

Film ugari egin dituzu, horien artean 'Latiños edo Jugando al futbol' eta horietako bat, 'Paella con aji' Ibarra eskainiko dute, zertaz hitz egiten duzu filman?

2003an Espainiarekin zerikusia duten lanak egin ditut. Film hauetan inmigrazioaren espirtua isla-

tzen saiatu naiz. Fikzioa erabiltzen dut, ez dut dokumentalik egin nahi. Nik fikziozko pertsonaiak sortzen ditut, horien bidez XXI. mende hasieratik Ekuadortik Espainiara ematen den inmigrazioa kontatzeko. *Paella con aji* filman ekuatoriarrak Espainiara iristen direnekoa islatzen dut. Hori, hala ere, lehen zatia besterik ez da, izan ere bigarren zati bat ere egin du, ia ekuatoriarrak Espainian egonkor-tuta daudenekoa. Film honek *Ayawaska* izena du eta datorren urtean hemen ere estreinatzea espero dut.

Bi kulturen arteko harremanaz hitz egiten duzu, hortaz, filmee-tan?

Elkartruke hori gustatzen zait, hemengo eta hango esaren arteko elkartrukea, hitz egiteko modu desberdinak... *Paella con aji* filma bi kulturen arteko amodio istorioa da eta horretarako umorea erabili dut.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Villabona, Anoeta, Irura, Altxo eta Alegiako udal ordezkariak Loatzo Musika Eskolako kideekin elkartu ziren atzo. A.I.

Udal ordezkariak bat egin dute Villabonan ospatuko den Loatzo Festarekin

Kultura » Xexili Egunean, hilaren 22an, Loatzo Musika Eskolak egun guztiko jaia ospatuko du Villabonako kaleetan.

ASIER IMAZ

Loatzo Festaren nondik norakoak, atzo ezagutu zituzten gertutik eskualdeko hainbat udal ordezkari. Anoeta, Villabona, Irura, Alegia eta Altxoko alkate eta zinegotziek, Musika Eskolaren ekimenarekin bat egin zuten Amasa-Villabonako udaltxeetan.

Ibarra, Zizurkil eta Adunako udal ordezkariak gonbidaturik baldin bazeuden ere, ez ziren aurkezpen ekitaldi honetan egon.

Ateak zabalik dituen Festa

Loatzo Musika Eskolak iaz Altxon ospatu zuen Xexili Eguna edo Musikarieng Eguna. Aurten berriz, Villabonan irtegora dira kalera hilaren 22an, igandean.

Eskolako zuzendariaren, Miren Mujikaren, esanetan, igandean Xexili jantzi eta edukiz aldatuko dute: «Orain arte Loatzo Festa goizean bakarrik ospatzen genuen.

Aurten ordea, ikasleekin eta gurasoekin hitz egin ondoren, egun guztiko jaia ospatzea erabaki dugu».

Horretaz gain, Festa irekia izatea nahi dute Loatzoko kideek. Ondorioz, ikasle eta gurasoekin batera, herritarrek ere parte hartzeko aukera edukiko dute Xexili Egunean: «Bazkarirako txartelak adibidez, udaltxeetan jarri ditugu salgai, erosteko aukera edonork eduki zezan».

Erantzunarekin «oso gustura»

Villabonan ehunka pertsona elkartzea espero dute antolatzaileek. Orain arte jasotako erantzunarekin «oso gustura» agertu da Miren Mujika: «Lehenik, ikasleen eta

gurasoen parte-hartzea azpimarratuko nuke. Gurasoekin adibidez batzarrak egin ditugu, euren iritzia eta laguntza jasotzeko. Antolakuntza lanetan aritzeko herri askotatik etorriko da jendea eta parte-hartze horrekin oso gustura gaude. Bestalde, herri txikietan antzeko gauzak egin daitezkeela erakutsi nahi dugu. Tolosa eta Andoain arteko 8 herritan aurkitzen da Loatzo Musika Eskola eta, herri txikiak ere zer esana dutela azaldu nahi dugu».

Loatzo Festa 11:00etan hasiko da Errebote Plazan. Hala eta guztiz ere, Eskolako trikitilariak, dultzaineroak eta txistulariak kalejiran ibiliko dira herrian barrena 10:00etatik aurrera.

» LOATZO FESTA

Hilak 22, igandea

- **10:00.** Txistulari, dultzainero eta trikitilarien kalejira herrian zehar.
- **11:00.** Jaiari hasiera, tailerreko haurrek abesti batekin emango diote, Villabonako plazan.
- **Ondoren.** Banda, orkestra eta eskusoinu taldeen kontzertua. Jarrera, dantzarako gunera joango dira.

- **12:00.** Plazan tailerrak, pailazoen laguntzarekin.
- **13:30.** Tailer eta goizeko ekintzen amaiera.
- **14:00.** Bazkaria, kiroldegian. Ondoren, kantu gunea izango da.
- **17:30.** Haurrentzat DJ baten eskutik musika plazan.
- **18:30.** Loatzoko ikasle eta ikasle ohien kontzertuarekin bukaera.

Leitzan ordenagailuan euskaraz

ERREDAKZIOA

Kax-Kax euskara taldeak *Ordenagailuan ere euskaraz* izeneko ekimena antolatu du hilaren 26an, ostegunean, 19:00etan Leitzako Institutuko Informatika Gelan.

Ekimena trebakuntza-saio praktikoa izanen da. Antolatzaileen esanetan, «euskaraz bizitze-

ko, aritzeko eta lan egiteko erabakia hartu duten guztientzat oso erabilgarria izanen dena».

Saioaren gaia eta edukia

Trebakuntza-saioan ordenagailuan euskaraz aritzeko argibideak emanen dira, eta ikasitako praktikan probatuko da.

Horretaz gain, euskarazko softwarea zein den azalduko da, eta sistema horiek eta programak horiek nola eskuratzeko diren eta nola instalatzen diren ikusiko da, banan-banan. Besteak beste ondorengoak: Windows XP eta Vista; Ubuntu; Office 2003 eta 2007; Internetetako nabigatzaileak, etab.



Biribilgunean zirkulazioa zabalik

LEITZA » Lopeneko Iturria zegoen lekuan biribilgunea egiteko lanak amaitzeaz aurkitzen dira. Horren adierazle nagusia errepidea bera da, jada bi noranzkoetan zabalik aurkitzen baita. Biribilgunearekin hemendik aurrera bidegurutzeko zirkulazioa erraztuko da. A. IMAZ

Torreko VII. Garagardo Pesta ospatuko da larunbat honetan

Leitza » Afariko txartelak Torrean bertan aurkitzen dira salgai 26 euroren truke. Erosteko azken eguna etzikoia izanen da.

Edanaz gain, jateko aukera ere egonen da bertan. Afaria 21:30ean eginen dute eta txartelak Torrean erosi ahal izanen dira etzi arte, 26 eurotan.

Garagardo Pestako menua

Mota desberdinetako saltxitxek zabalduko dute menua, patata pu-rearen laguntzaz. Ondoren txerri saiheksia egonen da. Amaiera aldean, limoi eta kaba sorbetea eta kafea eta kopa egonen dira.

ERREDAKZIOA

Zortzi garagardo mota desberdin dastatzeko aukera egonen da hilaren 21ean, larunbata, Torrean ospatuko den VII. Garagardo Pestan.


Laburrak

Bihar ipuin kontalariak Altxon eta Alegian

KULTURA » Altxoko liburutegian Idoia Sanchez ipuin kontalaria egongo da bihar, hilak 19, 17:30etik aurrera. Alegian berriz, egun berean eta Udazkenean Kulturaren baitan, Maite Franco ipuin kontalariak saioa eskainiko du liburutegian. Kasu honetan emanaldia 18:00etan hasiko da.

Hilaren 21ean antzerki emanaldia Zinean

LEITZA » Herriko Kultur Taldeak antzerki emanaldia antolatu du hilaren 21erako, larunbaterako, Leitzako Zinean 20:00etan. Txalo produktzioen eskutik, Sara Cozar, Joseba Usabiaga eta Iker Galartza antzezleek *Ate Joka* (lan bikaina) eskainiko dute. Bertan bi lagun arteko biziopenak kontatzen dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Adinekook zer eskaini diezaiogegu gizarteari? Zer eskaini diezaguke adinekooi gizarteak? hitzaldia Kultur Etxean 18:00etan.

■ **Zizurkil.** Maria Luisa Jaussi *Ikasketak komunitatearen oinarriak* gaiaz ariko da P.M.Otaño eskolako liburutegian 18:00etan.

Kultur asteak

■ **Aduna.** Ahozko tradizioko zenbait ipuin haur eta gaztetxoiei zuzendua 17:30ean eta sendabelarrei buruzko hitzaldi-ikastaroa 20:30ean Kultur aretoan.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Larunbatean Izokinen XVIII. Gipuzkoako Arrantza Txapelketa Beteranoentzat jokatu da Araxes ibaiko kotoan. Izenematea, Usabal kiroldegian 19:00etatik 20:30era.

■ **Villabona.** Abenduaren 12an Tolosan egingo diren Emakume Abertzaleen IV. Topaketen aurkezpena Mintzolan 19:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 676013.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

» IRRATIA

Txolarre irratiak
11:00-13:30. Tolosaldeko Ahotza: Albistegia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak.
13:30-14:00. Albistegia - Info 7. **14:00-15:00.** Tolosaldeko Albistegia. **17:00-17:45.** Musika nobedadeak. **17:45-18:00.** Argia as-

tekaria **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotza (errepikapena). **20:00-20:30.** Albistegia, Info 7. **21:00-23:00.** Bide okerretik.

» TELEBISTA 28 Kanala

08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alex.
09:30. Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kalekantoitoi. **10:30.** Ilunpean. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** 28 kirolak. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Muka-Muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kalekantoitoi. **14:30.** Ilunpean. **15:00.** Erioklip **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** 28 kirolak. **16:30.** Zahar berri. **17:00.** Muka-Muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoakultura. **18:30.** On ein!
19:00. Saio berezia **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Artegitza. (*16:30etik 20:00etarako blokea 4 orduro).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanzen eta iritzien erantzunikun.



A Agurrak



Urte askoan

Garikoitz Zubeldia (Lizartza). Zorionak astelehenero partez zure 12. urtebetzean, gurasoak, izeba-osabak, lehengusuak eta aitona-amonen partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Segundo Montes en alde lanean

ADUNA • El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin senidetuta dago Aduna. Urte hauetan udalak diruz lagundu ditu bertan egin diren hainbat proiektu eta aurten herritarren parte-hartzearekin elkartasun taldea ere osatu dute. Gaur egun 5 partaidek osatzen dute taldea (irudian) eta besteak beste, 2010. urteko egutegiak egin dituzte. Egutegi hauek salgai daude 5 eurotan Kultur Asteko ekitaldietan. Uztartza aterpetxean eta Adunako udalako bulegoetan. Hain zuzen, Kultur Astean gaur ere izango bi ekitaldi antolatuta dituzte: 17:30ean ahozko tradizioko zenbait ipuinen kontaketa eta 20:30ean *Sendabelarrak* ikastaroa. HITZA

09 Oiarzungo Eskalada Txapelketa Herrikoa

hitza

Gorrotxategi PRODUKTUAK

Turroi sorta **29€**

Tolasako xaxuak
Txakolin txakolatea
Jagurti turroia masustarriarekin
Aktikoa eta mertxika turroia

Turroi askotarikoak **19,50€**

Mandarina turroia boilur zuziarekin
Txakolate turroia alminderekin
Mertxika turroia txakolatearekin
Jagurti turroia masustarriarekin

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUEKIN OSATUTAKO SASKIAK

saskia **44€**

Otxoa-laitilo andi gantz, 800g
Nafarroako galletak, 150g
Basotegi besoa, 100g
Etxeko txakolate lodia 100g
Sagar dulzera, 300ml
Agiñako pipernak, 370ml
Cetariako heguzalaz, 170g
Zaindari zuria, elatagibak, 947g

Miazabato andi gantz, 200g
Fale gris biota, 150g
Etxeko txakolate lodia 100g
Basotegi besoa, 100g
Milkone ezka, 100g
Agiñako pipernak, 370ml
Cetariako antoxa, 100g
Pikillo ezka, 200g

saskia **59€**

Erosi berriaren plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroaren 30a arte

943 30 43 45
www.berria.info
harpidetza@berria.info

Bidalketa gastuak doan

AUKERA EZAZUL
BIZI ERUSKETA
berria